


NOLAKOA BEHAR DU EKINTZA  
KOMUNITARIOAREN POLITIKA PUBLIKOAK  
GIPUZKOAN?

# SINTESI-TXOSTENA

## 3.tailerra: Erronkak garatzeko nola antolatuko gara? Zer egin daiteke erakunde desberdinetatik?

2022ko martxoak 18 (herri ertain-handiak)/martxoak 22 (herri txikiak)



**Tailerraren helburuak:**


- Ekintza komunitarioko erronka bakoitzak zein antolamendu-erronka planteatzen dizkigun lantzea. Horretarako lanerako galdera nagusiak izan ditugu:
  - Ekintza komunitarioko erronka bakoitza garatzeko, zeintzuk dira ditugun antolamendu-erronkak?
  - Erronken garapenean, Aldundiak edo bestelako erakundeek zertan lagun dezakete?
  - (Herri txikietan) Beste herri batzuekin zer egin dezakegu elkarlanean?

Galdera hauek erantzuten laguntzeko gakoak hauek izan dira:

- Zer egin dezakegu? Ditugun aktiboak nola erabili ditzakegu? Daukaguna nola erabili dezakegu beste modu batera?
- Zein izan daitezke aldaketarako palankak?

Sintesi-txosten honetan tailerretan (herri ertain eta handietako ordezkariekin martxoaren 18an egindakoa, eta herri txikietako ordezkariekin martxoaren 22an egindakoa) atera ziren edukiak antolatu ditugu: erronka bakoitza garatzeko planteatzen zaizkigun antolamendu-erronkak jaso ditugu batetik; eta bestelako erakundeek, Aldundiak kasu, eman dezaketen laguntza-mota laburbildu dugu, bestetik (azken honetan, erronka guztietan atera diren ideiak bildu ditugu, eta taula bakar bat osatu dugu).

Erronka hauen gainean jardun dugu lanean:



## ANTOLAMENDU-ERRONKAK:

## 1. ERRONKA:

**Antolatuta dauden herritarrak: nola lan egin ehun soziala indartu eta elkarteek proiektu sendoak izateko?**

**1. Pentsamendu-aldaketa lan egiteko eta harremanak egiteko moduetan**

- 1.1. Bulegotik atera; harremanak lau hormetatik kanpo izatea
- 1.2. Administrazioak kanpoko espazioetan parte hartzea
- 1.3. Lan-espazio informalak sustatzea
- 1.4. Lan-baldintzak birpentsatzea: disposizioa, antolamendua, ordutegia
- 1.5. Zerbitzuan, lanpostu-aldaketa gehiegizko eta estankoen arteko oreka lortzea
- 1.6. Malgutasuna planifikazioan: gure planifikazioaren arabera, estu jokatu beharrean, herrian sortzen diren aukerak baliatzea

**2. Zerbitzua egokitzea**

- 2.1. Bidelaguntza eskaintzea elkartei (hasieran eta amaieran)
- 2.2. Herritarra aintzat hartzeko, udal barruan sinergiak aprobetxatzeko antolamendua egokitzea (elkarleen beharrak ezagutzeko inkestak bi sailetatik era berean egin gabe)
- 2.3. Elkarteetan erreleboa sustatzeko gazteei entzutea
- 2.4. Binkuloak sortu eta indartzeko moduetan pentsatzea
- 2.5. Elkarteetan lana aitortzea
- 2.6. Baliabideak modu partekatuan kudeatzeko erak aztertzea (lokalen lagapena, ezagutza...)

**3. Baliabide ekonomikoak emateko bideak birpentsatzea**

- 3.1. Proiektuak diruz laguntzea
- 3.2. Banakakoei ere laguntzak emateko aukerak aztertzea
- 3.3. Elkarteetan egiturak ere diruz laguntzea (ez bakarrik proiektu zehatzak)
- 3.4. Hitzarmenen bidea lantzea elkarteek egonkortasun handiago izan dezaten.
- 3.5. Burokrazia arintzeko estrategiak lantzea

**4. Ehun soziala entzun eta inpaktu soziala neurtzea**

- 4.1. Ehun sozialaren beharrak entzutea (ez soilik elkarteetan, horretarako, entzutea ondo diseinatu, espektatibak landu, etab. Behaketa aktiboa.
- 4.2. Ehun sozialak bideratutako proiektuen inpaktu soziala aztertzea, politika publikoetan duten eragina aztertzea.

**5. Herri txikietan**

- 5.1. Herriko elkarteetan eta eragile desberdinen mahaia osatu eta sustatzea
- 5.2. Elkarteetan arteko aliantzak sustatu, elkarlanerako ohitura sustatzeko
- 5.3. Elkarte/eragile/taldeentzat formakuntza eskaintzea
- 5.4. Elkartei baliabide anitzak eskaintzea: lokalak, ekonomikoak, aholkularitza, ikusgarritasuna...
- 5.5. Elkarteak ekintza komunitarioan eta elkarlanean jardun daitezten dirulaguntzetan irizpide puntuagarri gisa gehitzea



## 2. ERRONKA:

Antolatuta ez dauden herritarrak: nola iritsi iristen ez garen horiengana?



### 1. Kultura aldaketa, ikuspegia aldatzea udal barruan

- 1.1. Komunitatea sustatzearen ardura denona dela ikusaraztea. Departamentu edo politika "gogorretara" iristea.
- 1.2. Proiektu komunak lantzea, horretarako norabide argia izatea: marko komun bat
- 1.3. Metodologiari garrantzia eman. Proiektuen helburuetan arreta jartzeaz gain bideari eta metodologiari balioa ematea, bestelako lorpenak sustatuz

### 2. Udal barruan departamentuen arteko harremanak sustatzea

- 2.1. Guneak, espazioak eta proiektu komunak sustatzea
- 2.2. Politikak modu integralean departamentu guztietan lantzea, era transbertsalean
- 2.3. Lan-espazioak egokitzea; arkitekturak, elkarlana eta elkar ezagutza ahalbidetu dezan.

### 3. Administrazioaren egiturak eta teknikarien funtzioak berrikustea

- 3.1. Administrazioaren egituretan jerarkiak gutxiagotu
- 3.2. Aurrekontu- eta dirulaguntzen-sistema berrikusi
- 3.3. Burokrazia sinplifikatu
- 3.4. Teknikarien funtzioetan aurreikusi: elkarlana edo proiektu komunetan jarduteko, eta deboluzioetarako orduak

### 4. Herritarrekiko begirada aldatu eta bitartekoak jartzea horretarako

- 4.1. Herritarren beharrak zeintzuk diren ezagutzeko prest izatea eta behar bezala entzuteko baliabideak jartzea
- 4.2. Gertutasuna erakutsi eta eman herritarrei. Horretarako administrazioa eta profesinalak trebatu eta ikasi, eta baliabide materialak eskaintzea, eskura jarri bulegoak, etab.
- 4.3. Lider komunitarioekin lan egitea.
- 4.4. Komunitateko profesionalen begirada aldatzea: arreta pertsonen beharretan jarri beharretan, beraien indarguneetan jarriz. Adibidez, irakurtzea maite badute, irakurleen kluba sortuz.
- 4.5. Indibiduotik kolektiborako begirada lantzea, horretarako banakakoen interesen arteko loturak egin.
- 4.6. Parte hartzeko zailtasunak identifikatzea, arrakala sozialak ezagutzea (Zumarragako ikerketa)
- 4.7. Eskaintzak dibertsifikatzea herritar gehiagorengana iristeko, baina aldi berean plaza edo espazio komunak identifikatzea

### 5. Herri txikietan

- 5.1. Etorri berriei informazioa helarazteko bideak ondo diseinatzea eta "bermatzea" edo bermatzeko saiakera egitea
- 5.2. Etorri berriei komunitatera harrera egiteko dokumentazio ulerterraza sortzea eta ereduak partekatzea
- 5.3. Udal zerbitzuetan harrera postuetan dauden langileek ikuspegi komunitarioa txertatua izatea, eta horretarako formakuntza eskaintzea
- 5.4. Etorri berrien harrera komunitarioki lantzea
- 5.5. Espazio publikoak diseinatu edota bermoldatzea (barne zein kanpo) harremanak errazteko
- 5.6. Eskola, kultur etxea, kiroldegia... baliatzea lan komunitarioa egiteko
- 5.7. Azpiegiturak ordutegi ezberdinetan baliatzeko moduak aztertzea
- 5.8. Herrian dauden komunitateak (herrialde desberdinak) identifikatu eta bakoitzeko pertsona erreferentzialak identifikatu eta haiekin lanketa egitea
- 5.9. Elkarlana sustatzea lan komunitarioa egiteko orduan udala, zerbitzuak, eta herriko eragilen artean



**3. ERRONKA:**

**Azpiegitura sozialak/espazio publikoak: nola egin azpiegiturek bizitza komunitarioa sustatu dezaten, harremanetarako/elkartzeko gune izan daitezen?**

**1. Azpiegitura eta espazioen diagnostikoa egitea**

- 1.1. Zer espazio eta azpiegitura mota ditugun ezagutzea, bakoitzaren ezaugarriak ikuspegi komunitario batetik kontuan hartuz
- 1.2. Ekipamenduetan nor dagoen eta nor ez dagoen identifikatzea
- 1.3. Ekipamenduetan harrera nola dagoen aztertzea, espazioa eta baliabide pertsonalei arreta jarritz: harrera errazten dute? galderari erantzutea

**2. Espazioen diseinuan ikuspegi komunitarioa txertatzea**

- 2.1. Espazioen diseinuan erabiltzaileak parte hartzea, beraien beharrak eta irizpideak kontuan hartzea
- 2.2. Hirigintza-sailetik espazioak eta azpiegiturak ikuspegi komunitariotik diseinatzeko eta baita zaintza edo segimendua egiteko tresnak sortzea, adibidez, Check lista. Adibidez, Genero ikuspegia edo euskararen erabileraren azterketa egiten duten bezala
- 2.5. Herrien arteko elkarlana lantzea, adibidez, zirkuitoak sortuz.
- 2.6. Programazio gabeko espazioak "antolatzea" VS espazio libreak uztea
- 2.7. Espazioen erabilerak irekitzea, eta espazio batzuen erabilerarekin ditugun aurreiritziak apurtzea, ideario berria lantzea.

**3. Lanerako markoa, ikuspegia eta baliabideak eskaintzea**

- 3.1. Lanerako marko adostua izatea
- 3.2. Udal-langileen funtzioak ereribisatu eta profilak eguneratzea. Bulego-lana egiteaz gain, udal-langileek herritarrekin lan egiteko funtzioak izatea. Azpikontratatzaren diren funtzioetan ere txeratzea eta balioan jartzea.
- 3.3. Oro har, udalek ikuspegi komunitarioaren rola bere egitea, bere esentzia baita

**4. Herri txikietan**

- 4.1. Udal barruan begirada zabaltea, ikuspegi komunitarioa zabaldu eta zerbitzu arteko lana sustatzea
- 4.2. Herritarrei (haurrak barne) herria eta ekipamenduak hobeto ezagutzera ematea
- 4.3. Berrikuntzak proposatzea azpiegitura eta espazioetan eta eraikitzen ausartzea, eta herritarrek zein erabilerara ematen dioten ikustea (nork erabiltzen du?)
- 4.4. Espazio desberdinetan nor falta den identifikatzea: sexua, adina, etab.



#### 4. ERRONKA:

#### Sektorekako politikak: nola egin kultura/hezkuntza/berdintasuna/hirigintza/jasangarritasuna... komunitarioa?

##### 1. Erakundearen markoa eta koherentzia

- 1.1. Erabaki politikoa esplizitatzea (markoa ezarri) eta agendan sartzea.
- 1.2. Malgutasuna herritarrekin batera lan egin ahal izateko (arratsaldeko bilerak, ordutegiak...)
- 1.3. Erakundeak lanerako malgutasun hori ahalbidetzea eta erraztea; diskurtsoan bai praktikan, koherentzia izatea.
- 1.4. Plegu-lizitazioetan ikuspegi komunitarioa txertatzea
- 1.5. Sektore deseberdinek ikuspegi komunitarioa izatea

##### 2. Sektoreen artean helburu komunak eta adostuak definitzea

- 2.1. Sektore/zerbitzu deseberdinen artean helburu komunak adostea eta batzen dituzten proiektuak/ekintzak erdigunean jartzea, sail edo zerbitzu anitzak elkartuko dituen guneak sortuz.
- 2.2. Sektore/zerbitzu deseberdinetako baliabideak batzen joatea, eta ez bakoitza bere aldetik.
- 2.3. Sailen arteko koordinazioa eta zeharlerrotasuna laneko egituraren txertatzea (sektorearen arabera lan egitearen ikuspegia ere barne hartuz).

##### 3. Eragileekin koordinazio-mahaia sortzea

- 3.1. Udalek lidergoa duen koordinazio-mahaian sorrerak bultzatzea (Gazteria Mahaia, Hezkuntza Mahaia, Kirol-elkarteak, guraso-taldeak...)
- 3.2. Gizarte-komunitatean beherakadak dauden momentuetan, eragileek martxan dituzten proiektuak aknpiantzea eta babestea.
- 3.3. Elkarte eta eragileen errealitatea eta praktika hobeto ulertzeko, entzuten ikasi eta enpatian trebatu

##### 4. Herri txikietan

- 4.1. Erakundeen baitan harremanak zaintzeko eta gatazkak bideratzeko arreta antolatua eskaintzea
- 4.2. Udal antolamenduan sailen arteko espazioak sortu eta sustatzea
- 4.3. Udaleko langileen eta eragileen arteko loturak sustatzea
- 4.4. Erronka komunitario bat proposatzea denon artean heltzeko



## ALDUNDIAK EDO BESTELAKO ERAKUNDEEK ZERTAN LAGUN DEZAKETE?

**1. Baliabideak eskaintzea**

- 1.1. Aurrekontua, trebakuntza, pertsonala.. eskaintzea
- 1.2. Komunikazio-lanetan laguntzea
- 1.3. Antena eta errepetidore lana egitea: han eta hemen dauden proiektuak identifikatu eta komunikatzea
- 1.4. Elkarteen informazioa eguneratuta izatea eta eurek egiten duten lana ikusgarri egitea (azokak antolatu, webgune batean proiektuak erakutsi...)
- 1.5. Dirulaguntzak jartzea ekintza komunitarioa sustatzeko, proiektu komunitarioak sustatzeko (bai herritarrek sustatuak zein beste erakundeek)
- 1.6. Proiektuak garatzeko orduan eskema argi bat izan eta egitasmoan zehar bidelaguntza eta gertutasuna eskaintzea
- 1.7. Herriko eragileekin osatutako koordinazio-mahaiak antolatu/bideratu ahal izateko aholkularitza eskaintzea (lehen bilerak antolatzekeo, eragileak identifikatzeko, bileretako dinamikak...)

**2. Sarea eraikitzea**

- 2.1. Espazio komunitarioak sortzea; ekintza komunitarioa sustatzeko sareak sortzea: udalen arteko sareak eta tamailank kontuan hartuta (herri txikiena), lurraldeko ordezkari politikoen arteko sareak, politika desberdinak kudeatzen dituzten teknikarien sareak (hirigintza, gazteria...), etab; eta daudenak mantentzea (berdintasuna, partaidetza...)
- 2.2. Espereintziak eta ereduak trukitzea
- 2.3. Trebakuntzak sustatzea politikla desberdinetako teknikariei zuzenduta
- 2.4. Aldundiak loturak edo binkuloak sortzea eta estutzea. Aldundiak hau erraztea: elkar ezagutzea eta harremanak

**3. Markoa eta ikuspegia eskaintzea**

- 3.1. Lurralde mailako marko adostua eskaintzea (politikariak aldatu arren, politikak aldatu ez daitezzen)
- 3.2. Markoa helburuetan ere jasotzea, zer eta nola jardun behar dugun jakiteko.
- 3.2. Marko legala egokitzea
- 3.2. Lurralde ikuspegi integrala eskaintzea: azpiegitura sozialetan ikuspegi sektorialak txertatzea
- 3.4. Lurralde ikuspegia ematea: entzuketik beharrak jaso, eta tokiko erantzun eta konponbideak ematea.

**4. Ikusgarritasuna eman egindako lan komunitarioari**

- 4.1. Ikuspegi komunitarioarekin dagoeneko lanean diharduenari ikusgarritasuna ematea, ezagutaraziz eta balioan jarritz.

**5. Beste erakunde batzuk: unibertsitatea**

- 5.1. Herri txikietan unibertsitatearekin lankidetzak erakitzea: ikasturte bukaerako lanak, ikerketak, analisiak egiteko hitzarmenak egitea. Gai desberdinak izan daitezke: arkitektura, gizarte langintza, etab.

